

2009ko bigarren hiruhilekoan heriotza gehiago izan da

2009ko apirilean, maiatzean eta ekainean 4.430 pertsona hil ziren, % 52,8 gizonak eta % 47,2 emakumeak

EUSTATen datuen arabera, 2009ko bigarren hiruhilekoan 4.430 pertsona hil ziren, aurreko urteko aldi berean baino % 2,9 gehiago. Lurraldeka, Araban 540 pertsona hil ziren, Bizkaian 2.509 eta Gipuzkoan 1.381.

Heriotza eragin zuen arrazoi nagusia tumoreak izan ziren, 1.394 pertsona hil ziren tumoreengatik (% 31,5); heriotzaren bigarren arrazoa zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren, hauek 1.283 heriotza eragin baitzituzten (% 29). Hirugarren arrazoa arnas gaixotasunak izan ziren, 358 pertsona hil zirelako arrazoi horrengatik (% 8,1).

Sexuaren arabera, heriotzaren eragileak ezberdinak izan ziren. Gizonen artean, tumore baten ondorioz hildakoak zirkulazio-sistemako arazoren baten ondorioz hildakoak baino gehiago izan ziren; emakumeen artean, ordea, heriotza gehien eragin zuten gaixotasunak kardiobaskularrak izan ziren eta bigarren gaixotasunak tumoreak. Arnas sistemako gaixotasunak bi sexuen artean heriotzaren hirugarren arrazoi moduan mantentzen dira.

2009. urteko bigarren hiruhileko honetan, heriotzen artean urte bat bete ez zuten 8 ume hil ziren; 4 mutil eta 4 neska.

2009ko bigarren hiruhilekoko hazkunde begetatiboa positiboa izan zen, 917 pertsona gehiago izan zirelako. Hiru lurraldeetan eman ziren saldo positiboak: Araban 304 biztanle gehiago izan zen, Bizkaian 141 eta Gipuzkoan 472.

1. taula: Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera. Hiruhilekoen alderaketa

	2009ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa 2009ko 1.hiruhilekoa		Aurreko urteko hiruh. bera 2008ko 2. hiruhilekoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	4.430	100,0	5.298	100,0	4.307	100,0
Gizonezkoak	2.340	52,8	2.713	51,2	2.303	53,5
Emakumezkoak	2.090	47,2	2.585	48,8	2.004	46,5
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	4.430	100	5.298	100	4.307	100
Tumoreak	1.394	31,5	1.427	26,9	1.397	32,4
Zirkulazio-aparatua	1.283	29,0	1.559	29,4	1.261	29,3
Arnas aparatua	358	8,1	622	11,7	377	8,8
Txegoste-sistema	223	5,0	237	4,5	230	5,3
Istripuak	91	2,1	137	2,6	158	3,7
Gainerako gaixotasunak	1.081	24,4	1.316	24,8	884	20,5
GIZONEZKOAK	2.340	100	2.713	100	2.303	100
Tumoreak	884	37,8	892	32,9	907	39,4
Zirkulazio-aparatua	619	26,5	712	26,2	573	24,9
Arnas aparatua	207	8,8	339	12,5	222	9,6
Txegoste-sistema	114	4,9	128	4,7	126	5,5
Istripuak	56	2,4	90	3,3	114	5,0
Gainerako gaixotasunak	460	19,7	552	20,3	361	15,7
EMAKUMEZKOAK	2.090	100	2.585	100	2.004	100
Tumoreak	510	24,4	535	20,7	490	24,5
Zirkulazio-aparatua	664	31,8	847	32,8	688	34,3
Arnas aparatua	151	7,2	283	10,9	155	7,7
Txegoste-sistema	109	5,2	109	4,2	104	5,2
Istripuak	35	1,7	47	1,8	44	2,2
Gainerako gaixotasunak	621	29,7	764	29,6	523	26,1

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es